



EBAZPENA, Hezkuntza sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetan 2024-2025 ikasturterako eskola-egutegia egiteko osagarriko arautegia ematen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizial guztietan 2024-2025 ikasturterako eskola-egutegia ondoko honi lotuko zaio:

1.- Iraileko azterketei, ebaluaketei eta ikasturte berriaren hasierarekin zerikusirik daukaten betebeharrak guztiei, irailaren 2an hasita ekingo diete Hizkuntza Eskola Ofizial guztiek.

2.- 2024-2025 ikasturteko eskolak ezingo dira 2024ko irailaren 30a baino lehen hasi, ezta 2025eko maiatzaren 15a baino beranduago bukatu ere.

3.- Ikasturteak 175 eskola-eguneko iraupena izango du eta horietatik 120 gutxienez, eskolak emateko izango dira edo irakaslea derrigor ikastetxean dela egin beharreko beste jarduera batzuk burutzeko. Aurkezpena egiteko erabiliko eguna benetako eskola egun horien barruan sartu ahal izango da. Edonola ere, klasea emandako egunak direnak direla, Hizkuntza Eskolak gutxienez 120 irakastordu eman behar die urtero ikasle-talde guztiei. 175 eskola-egunak osatu artekoak ikasle ofizial eta libreentzako ohiko eta ezohiko deialdietako azken azterketak egiteko erabiliko dira.

Uztailean zehar Zuzendaritza taldeko kideek euren karguen propio diren zereginak beteko dituzte. Hilabete horretan eta klaseak ematen ez diren ikasturteko beste egun edo aldietan, (abuztuan salbu), zuzendaritza-taldeko kide bat, gutxienez, beti izango da ikastetxean edo berehala ikastetxean izateko moduan.

4.- Ezinbestekoz klase-egun gutxiago beteko balitz, berregokitu egin beharko da egutegia, 120 egunotara iritsi arte, beti ere langileen eskubideak betetzen direlarik.

Nahiz eta egunen batean ikasle batzuk edo asko klasera ez joan, ikastetxeak klaseak ofizialki programaturiko ordutegiaren arabera eskaintzen jarraitu behar izango du.

Egutegia berregokitu behar denean hasieran egiteko erabili zen prozedura berbera jarraituko da.

Dagokion Aginte-organismoak ez badu berregokitze proposamenik egiten, Hezkuntzako Ikuskaritzak egin dezan eskatuko dio. Erantzunik ezean, Hezkuntzako Ikuskaritzak egutegia berregokitu eta ikastetxeari jakinaraziko dio.





5.- Eskola-egutegia egiteko, dagokion urteko Autonomia Erkidegoko lanegunetako jaiegunen egutegi ofizialaren arabera jaiegun izaera dutenak izango dira jaiegunak, baita herri edo dagokien lurraldeko zaindarien jaiegunak ere. Edonola ere ezin izango da jaiegun hauetakoren bat eskola-egun edo eskolak ematen diren egun bezala hartu.

Ikastetxeek, nahi izanez gero, jaieguntzat hartu ahal izango dute mailako zaindariaren eguna, dagokion egunean zein aukeratzen duten ordezkaturako beste egun batean ospatuz. Edonola ere ezin izango da jaiegun hori eskola-egun edo eskolak ematen diren egun bezala hartu.

6.- Eguberritako oporraldiak 2024ko abenduaren 24tik 2025ko urtarrilaren 6ra bitarteko aldia, gutxienez, hartuko du, azken hau barne.

Aste Santuko oporraldiak, 2025ko apirilaren 17tik apirilaren 21era bitarteko aldia, gutxienez, hartuko du, bi egun horiek barne.

7.- Eskola egutegiaren proposamena tramitatzeko 2008ko martxoaren 10ean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emandako Aginduko 9. atalean ezarritakoa hartuko da kontuan, (2008ko apirilaren 25eko EHAA).

Egutegi proposamena ikastetxeko Eskola Kontseiluak egingo du, baina ikastetxeren batean organo hori osatu gabe badago, irakasleen klaustroak egingo du egutegi proposamena.

2024ko maiatzaren 31a baino lehen, ikastetxeetako zuzendariak Hezkuntza Sailak horretarako espresuki diseinaturiko aplikazio informatikoa erabiliz hurrengo ikasturteko eskola-egutegiaren proposamena egingo dute, beti ere Hezkuntzako Ikuskaritzak jakinaraziko dizkien argibideak jarraituz. Ikastetxeek aplikazio horretan ikastetxeko Eskola Kontseiluak eskola-egutegiaren proposamena onetsi zuen data adieraziko dute. Organo horrek eskola-egutegiaren proposamena onetsi zuen bilkurako akta ikastetxean bertan artxibatuko da eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura izango da.

8.- Ikastetxeren batek, finkatutako epealdiaren barruan beren eskola-egutegiaren proposamena bidaltzen ez badu, edo bidalitakoa onartzen ez bada, dagokion Hezkuntza Lurralde Ordezkariak egingakoa onartu behar izango du.

Vitoria-Gasteizen,

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

Izp.: Begoña Pedrosa Lobato